# Entre la luz y la oscuridad
Argi-ilunetan

**Cristina Gómez Godoy**
Oboe/Oboea

**Perry So**
Director/Zuzendaria

TEMPORADA
DENBORALDIA
23-24



Orquesta Sinfónica de Navarra
Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA

ORQUESTA
SINFÓNICA
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ORKESTRA
SINFONIKOA

CICLO | ZIKLOA

**Fundación Baluarte Fundazioa**

LÍRICA | LIRIKOA

# Carmen

## G. Bizet

Producción de la Ópera
de Monte-Carlo en coproducción
con el Teatro Capitole de Toulouse
y la Ópera de Marsella



© Fotografía | Argazkia: Alain Hanel

Viernes 2 de febrero
Otsailak 2 ostirala
Hora 19:30

Domingo 4 febrero
Otsailak 4 igandea
Hora 18:30

Gobierno de España · Ministerio de Cultura · inaem
Fundación Baluarte Fundazioa · Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua · Fundación Cajanavarra · Mondragon · Fundación "la Caixa" · El Corte Inglés · Autopistas de Navarra



**Cristina Gómez Godoy**
Oboe/Oboea



**Perry So**
Director/Zuzendaria

Primera parte / Lehen zatia

## Wolfgang Amadeus Mozart (1756 - 1791)

*Sinfonía n. 25 en sol menor, K. 183* [24 ´]

I.Allegro con brio
II.Andante
III.Menuetto
IV.Allegro

## Richard Strauss (1864 - 1949)

*Concierto para oboe en Re Mayor, Trv 292* [26 ´]

I.Allegro moderato
II.Andante
III.Vivace

Segunda parte / Bigarren zatia

## Arnold Schoenberg (1874 - 1951)

*Noche transfigurada, op. 4* [30 ´]

Notas|Notak

La primera gran obra maestra de juventud de **Mozart** fue su *Sinfonía en sol menor K. 183*, compuesta en 1773 en Salzburgo. Sombría en sus compases iniciales, emocional y con los tintes dramáticos que le aporta el tono menor, esta sinfonía es, quizás, producto de la admiración que el joven compositor sentía hacia quien llegaría a ser su amigo, el maestro **Joseph Haydn**. En ella hay quienes aprecian la influencia del *Sturm und Drang* y sus teorías sobre el poder de la música para transmitir emociones. También es habitual escuchar la tesis de que esta sinfonía pudo convertirse en el modelo que el propio Mozart siguió para componer su célebre *Sinfonía n.º 40 K. 550*, igualmente en Sol menor.

La organización en cuatro movimientos que guardan relación temática entre sí, es ya muestra de la magistral técnica creativa del joven compositor y anuncia obras maestras de madurez. Como expresó **Hermann Beck**, la partitura sorprende por la gran *"amplitud de expresión, desde las sombras hasta la luminosidad, y por un nuevo lenguaje que se eleva muy por encima del carácter social de las sinfonías más antiguas"*. La atmósfera dramática es subrayada en el *Allegro con brio* inicial con síncopas, séptimas disminuidas e insistentes arpegios descendentes de las cuerdas. El *Andante*, con protagonismo de los vientos, trompas o fagotes, aporta serenidad y apacibles momentos. La oscuridad regresa en el *Menuetto* y se despejan los nubarrones en el *Trio* con inspiradas sonoridades de trompas, oboes y fagotes; pero regresa en el *Allegro* final que, en palabras de B. Paumgartner, *"surge como una sombra desde la profundidad, como obra tildada de wertheriana"*, sin duda, apasionada.

En los años previos a la Primera Guerra Mundial, el postromanticismo musical se asomó al abismo de la oscuridad y al Expresionismo sonoro de la mano de **Arnold Schoenberg**. Pasó su juventud en Viena y estaba familiarizado con el repertorio clásico al tiempo que se empapaba de cierta decadencia de las atmósferas de cabaré de los cafés vieneses de la primera década del siglo XIX. Las partituras que Schoenberg escribió en estos años son descritas por **Alex Ross** como *"esquirlas de tiempo suspendidas en las que la música se aferra obsesivamente a un solo acorde"*. El romanticismo de estas obras escapó de las convenciones de la música Romántica y se adentró en una oscuridad que no dejó a nadie indiferente.

El sexteto original de *Verklärte Nacht [Noche transfigurada]*, compuesto en 1899, no fue comprendido por la sociedad vienesa de 1902. Más adelante, en 1919, Schönberg presentaría una versión orquestal. La partitura estaba dedicada a su futura esposa e hija de su maestro Mathilde von Zemlinsky y seguía la influencia de los poemas sinfónicos de **Richard Strauss**, a quien admiraba. Su exuberancia sonora refleja la sensualidad del poema de **Richard Dehmel** que expresa culpa, tristeza, lamento y angustia, en la atmósfera nocturna de un bosque bajo la tenue luz de la luna, hasta la redención a través del perdón y del amor, gracias a los que la Noche se transfigura y la música nos cautiva con sus luces y sombras. La música estira hasta límites insospechados aquellos cromatismos que inició **Wagner** décadas atrás. En palabras de Ross, las *"disonancias inexplicadas afloran en la superficie; líneas cromáticas se cruzan en una maraña contrapuntística; acordes de un deseo anhelante que no consiguen resolver"*.

Richard Strauss se sintió fascinado por la personalidad artística de Schoenberg, quien le correspondió nombrándolo miembro de honor de la Asociación de Músicos Creativos de Viena. El propio Strauss expresó su esperanza de que la institución *"iluminara generosamente muchas mentes oscurecidas por la maldad y la estupidez"*. Muchos años después, ambos compositores habían vivido las dos Guerras. En la etapa final de la Segunda, Strauss quiso mantener distancias con el régimen Nazi. Cuando las tropas aliadas entraron en Gamisch (Baviera), Strauss recibió la visita del soldado estadounidense **John de Lancie**, oboísta en la orquesta de Pittsburg. Para él escribió su único *Concierto para oboe*, que estrenó en Zürich en febrero de 1946. Con tres movimientos que suenan encadenados, con él regresó Strauss al refinado Clasicismo mozartiano, con su transparencia de texturas sonoras y su simetría en la elaboración temática.

John de Lancie no pudo estrenar el concierto que Strauss le dedicó. La Orquesta de Filadelfia no se lo permitió por no ser solista principal. El estreno tuvo lugar en una emisión radiofónica (1948) dirigida por Bernard Herrmann y De Lancie esperó hasta la década de 1960 para interpretarlo, tras realizar algunos arreglos para facilitar su ejecución (pasó algunos motivos a la orquesta y modificó algún pasaje para organizar sus respiraciones), con el consentimiento de la familia de Strauss.

**Mar García**

**Mozarten** gazte garaiko lehen maisulan handia *Sol minorreko K. 183 Sinfonia* izan zen, 1773an Salzburgon konposatua. Iluna hasierako konpasetan, emozionala, eta tonu minorrak ematen dion tindu dramatikoz jantzia, sinfonia hori da agian konpositore gazteak bere laguna izanen zen pertsona batekiko zuen mirespenaren ondorioa, **Joseph Haydn** maisua, alegia. Batzuek *Sturm und Drang* mugimenduaren eta haren teorien eragina sumatzen dute lan horretan, hots, musikak emozioak transmititzeko ahalmena duela. Ohikoa da, halaber, beste tesi bat entzutea: sinfonia hori izan zela Mozartek berak erabilitako eredua bere *4. Sinfonia K. 550* ospetsua konposatzeko, Sol minorrean ere bai.

Gaiei begira lotura duten lau mugimendutan dago antolatua, konpositore gaztearen sorkuntza-teknika bikainaren erakusgarri, eta heldutasun aroko beste maisulan batzuk iragartzen ditu. **Hermann Beckek** adierazi bezala, bi arrazoi tarteko sortzen du partiturak harridura: *"batetik, adierazpen-zabaltasun handiagatik, itzaletatik argitasuneraino, eta bestetik, sinfoniarik zaharrenen izaera sozialetik oso gora igotzen den hizkuntza berri batengatik"*. Giro dramatikoa hasierako *Allegro con brion* nabarmentzen da bai sinkopekin, bai zazpidun gutxituekin, bai harien beheranzko arpegio etengabeekin. *Andante* mugimenduan ardatz dira haize-instrumentuak, hots, tronpak eta fagotak, eta baretasuna eta une atseginak dakartza. Iluntasuna *Menuetton* itzultzen da, eta gero, goibeltasuna Trion argitzen da tronpen, oboeen eta fagoten sonoritate inspiratuekin; baina bukaerako Allegron itzultzen da, zeina, B. Paumgartnerren hitzetan, *"itzal bat bezala sortzen baita sakontasunetik, werther moldeko lana dela esan izan baita; grinatsua, zalantzarik gabe"*.

Lehen Mundu Gerraren aurreko urteetan, posterromantizismo musikala iluntasunaren amildegira aterat zen, bai eta soinu arloko Espresionismora ere, **Arnold Schoenbergen** eskutik. Gaztaroa Vienan emanik, errepertorio klasikoa ezagutzen zuen eta, aldi berean, XIX. mendeko lehen hamarkadako Vienako kafetegietako kabaret-giroei zerien nolabaiteko dekadentzian blaitzen zen. **Alex Rossen** esanetan, Schoenbergek urte haietan ondutako partiturak *"denbora-printza esekiak bezalakoak dira, zeinetan musika obsesiboki atxikitzen zaion akorde bakar bati"*. Lan horien erromantizismoak musika Erromantikoaren arauetatik egin zuen ihes eta inor epel utzi ez zuen iluntasunean barneratu zen.

1902ko Vienako gizarteak ez zuen ulertu Verklärte Nacht lanaren jatorrizko sestetoa [Gau transfiguratua], 1899an konposatua. Geroago, 1919an, Schönbergek orkestrarako bertsioa aurkeztu zuen. Partitura bere etorkizuneko emazteari, Mathilde von Zemlinskyri, eskainia zegoen, hau da, bere maisuaren alabari, eta **Richard Straussen** poema sinfonikoen eraginari jarraitzen zitzaion, hura miresten baitzuen. Lanaren soinu-oparotasunak **Richard Dehmel** idazlearen olerkiaren sentsualtasuna islatzen du, zeinak errua, tristezia, auhena eta larrimina adierazten baititu, ilargiaren argi mehearen eraginpeko baso baten gau giroan, barkamenaren eta maitasunaren bidezko erredentzioraino; horiei esker Gaua transfiguratzen baita, eta musikak bere argi eta itzalekin liluratzen gaitu. Musikak muga susmagaitzateraino luzatzen ditu **Wagnerrek** hamarkada batzuk lehenago abiarazitako kromatismoak. Rossen hitzetan, *"azaldu ezinezko disonantziak azaleratzen dira; lerro kromatikoak kontrapuntu-nahaspila batean gurutzatzen dira; desio irrikatsu baten akordeek ez dute moldatzerik lortzen"*.

Schönbergen nortasun artistikoak Richard Strauss liluratu zuen eta, orduan, Schoenbergek hura Vienako Musikari Sortzaileen Elkarteko ohorezko kide izendatu zuen. Straussek berak bere itxaropena agertu zuen erakundeak *"eskuzabalki argituko zituela gaiztakeriak eta ergelkeriak ilundutako gogo asko"*. Handik urte aunitzetara, bi konpositoreek bi Gerrak bizi izan zituzten. Bigarrenaren azken etapan, Straussek Nazien erregimenarekiko distantzia mantendu nahi izan zuen. Tropa aliatuak Gamischen (Bavarian) sartu zirenean, Straussek **John de Lancie** soldadu estatubatuarraren bisita jaso zuen; soldadua oboe-jolea zen Pittsburgeko orkestran. Harendako idatzi zuen bere *Oboerako kontzertu* bakarra, 1946ko otsailean Zürichen estreinatu zuena. Kateaturik soinu egiten duten hiru mugimenduz osatua, Strauss Mozarten tankerako Klasizismo finera itzuli zen, soinu-testuren gardentasunarekin eta gaien lanketan agertu zuen simetriarekin.

John de Lanciek ezin izan zuen estreinatu Straussek eskaini zion kontzertua. Filadelfiako Orkestrak ez zion utzi, bakarlari nagusi ez izateagatik. Estreinaldia Bernard Herrmannek zuzendutako irrati-emankizun batean (1948) izan zen, eta De Lanciek 1960ko hamarkadara arte itxaron zuen huraxe jotzeko, interpretazioa errazteko zenbait moldaketa egin ondoren (motibo batzuk orkestrara pasatu zituen eta pasarteren bat aldatu zuen bere arnasketak antolatzeko), Straussen familiaren baimenarekin.

Biografía | Biografia

**Cristina Gómez Godoy**
Oboe/Oboea

Cristina Gómez Godoy es la oboísta principal de la Staatskapelle Berlin desde 2013. Además, es profesora adjunta en la Universität der Künste Berlin (UdK) desde 2015.

Desarrolla una intensa actividad como solista y músico de cámara. En 2019 hizo su debut en el Carnegie Hall y Pierre Boulez Saal con el pianista Michail Lifits. Posteriormente, fue seleccionada por la European Concert Hall Organisation (ECHO) como "Rising Stars" (2020-21). A lo largo de su carrera ha actuado en Ravinia Festival (EE. UU.), Lucerne Festival, Rheingau Musik Festival, Elbphilharmonie, Musikverein de Viena y Konzerthaus de Dortmund.

Como solista ha actuado con la BBC Scottish Symphony Orchestra, Festival Strings Lucerne, Helsinki Philharmonic Orchestra, Orquesta Sinfónica de Barcelona, Orchestra Sinfônica do Estado de São Paulo, Orquesta Sinfónica de Castilla y León y Real Orquesta Sinfónica de Sevilla, entre otras. El 3 de febrero debutará con la Tonhalle-Orchester Zürcih y el maestro Paavo Järvi.

En febrero de 2022 publicó su álbum debut con Warner Classics, Mozart and Strauss Oboe concertos con la West-Eastern Divan Orchestra y Daniel Barenboim.

Cristina Gómez Godoy Staatskapelle Berlin-eko oboe-jole nagusia da 2013tik hona. Gainera, irakasle atxikia da Universität der Künste Berlin (UdK) unibertsitatean, 2015az geroztik.

Lan handia egiten du bai bakarlari gisa, baina ganbera musikari gisa. 2019an, Carnegie Hall-en eta Pierre Boulez Saal-en egin zuen debuta Michail Lifits pianistarekin. Gero, European Concert Hall Organisation (ECHO) erakundeak "Rising Stars" gisa aukeratu zuen (2020-21). Bere ibilbidean honako jaialdietan aritu da: Ravinia Festival (AEB), Lucerne Festival, Rheingau Musik Festival, Elbphilharmonie, Vienako Musikverein eta Dortmundeko Konzerthaus.

Hamaika talderekin aritu da bakarlari gisa. Hona hemen: besteak beste, BBC Scottish Symphony Orchestra, Festival Strings Lucerne, Helsinki Philharmonic Orchestra, Bartzelonako Orkestra Sinfonikoa, Orchestra Sinfônica do Estado de São Paulo, Gaztela eta Leongo Orkestra Sinfonikoa eta Sevillako Errege Orkestra Sinfonikoa. Otsailaren 3an, bestalde, Tonhalle-Orchester Zürcih-ekin eta Paavo Järvi maisuarekin eginen du debuta.

2022ko otsailean, bere debut-albuma plazaratu zuen Warner Classics etxearen eskutik, Mozart and Strauss Oboe concertos, West-Eastern Divan Orchestrarekin eta Daniel Barenboimekin.



**Concertino invitado/ Kontzertino gonbidatua**
Miguel Borrego

**Ayuda de concertino/ Kontzertinoaren laguntzailea**
Anna Siwek

**Violines I/I Biolinak**
Daniel Menéndez *
Malen Aranzabal
Nikola Takov
Catalina García-Mina
Edurne Ciriaco
José Ignacio López ®
Inés De Madrazo
Enrico Ragazzo
Aratz Uria
David Pérez

**Violines II/II Biolinak**
Anna Radomska *
Maria Teresa Ciriaco *
David Andreu
Lourdes González
Angelo Vieni
Fermín Ansó
David Cabezón
Miguel Losada ®
Sergiu Ionescu
Fernando Pina ®

**Violas/Biolak**
Carolina Úriz *
Fco. Javier Gómez **
Irantzu Sarriguren
Víctor Muñoz
José Ramón Rodríguez
Robert Pajewski
Malgorzata Tkaczyk
Carlos Nicolay ®

**Violonchelos/Biolontxeloak**
David Johnstone *
Tomasz Przylecki **
Carlos Frutuoso
Aritz Gómez
Dorota Pukownik
Lara Vidal

**Contrabajos/Kontrabaxuak**
Piotr Piotrowski *
Daniel Morán *
Gian Luca Mangiarotti
Tarek Tebsamani ®

**Flautas/Txirulak**
Xavier Relats *
Ricardo González **

**Oboes/Oboeak**
Juan Manuel Crespo *
Jesús Ventura *

**Clarinetes/Klarineteak**
Elisa López *
Fco. Javier Inglés *

**Fagotes/Fagotak**
José Lozano *
Ferrán Tamarit *

**Trompas/Tronpak**
Julian Cano *
Jessica Rueda *
Aritz García de Albéniz
Marc Moragues

* Solista / Bakarlaria
** Ayuda de solista / Bakarlariaren laguntzailea
® Contratación temporal / Aldi baterako kontratazioa

# Orquesta Sinfónica de Navarra
# Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Calle Sandoval 6
31002 Pamplona-Iruña
948 229 217

www.orquestadenavarra.es
info@orquestadenavarra.es

OrquestaSinfonicaDeNavarra
@orquestanavarra
@orquestasinfonicadenavarra
youtube.com/OrquestaSinfonicadeNavarra

**Reciba las novedades de Fundación Baluarte en su Whatsapp. Envíe "alta" al +34 636 86 32 57**

FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA
ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA · NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
FUNDACIÓN CAJANAVARRA
Fundación "la Caixa"
AUTOPISTAS DE NAVARRA
El Corte Inglés
MONDRAGON

Este programa se ha impreso utilizando papel reciclado
Eskuko programa hau paper birziklatuan inprimatu da

DL.NA 585-2015